

Jaialdia
OLATU TALKA



memoria
2019



IBILBIDEA

Olatu Talka Jaialdia^{ren} hamargarren edizioa azkena izan zen. **60.000 lagunek** hartu zuten parte, inoiz baino gehiagok, eta halaxe esan zuen agur jaialdiak, Donostia urteotan mobilizatu eta gero.

Jaialdia 2010ean hasi zen, 2016an Europako Kultura Hiriburutza lortzeko proiektuari bultza egiteko asmoz. Kultur Hiriburutza amaitu ondoren, Olatu Talkak aurrera jarraitu zuen azken unera arte, hasierako helburuen atzetik betiere, eta "Hiria egitea" goiburuari leial.

Jaialdiaren helburu nagusia **herritarren parte-hartzea bultzatzea** izan zen, eta kultur eragile aktibo bihurtzea. Horretarako, jaialdiaren berezitasun nagusia programazioa herritarrek herritarrentzat eratzea izan zen, **era guztietako jarduera eta dinamikei** bide emanez.

Urtez urte, Olatu Talka, **2.000 eragile**ren lanari esker, gai izan zen **200 jardueratik** gorako agenda bat osatzeko. Parte hartzen zuten kultur eragile eta elkarteek beren jarduerak egiteko era berriak ezagutu ahal izan zituzten.

AZKEN OLATU TALKA

2019an, Olatu Talkak agur esan zuen **azkenekoz, eta edizio horretako helburu nagusietako bat** hamar urteko lanaz osatutako ibilbidea aldarrikatzea izan zen. Horretarako, edizio horretan aurreko edizioetan jardundako zenbait eragilerekin batera lan egin zen, eta, berriz ere, jardueren **deszentralizazioa** funtsezkoa izan zen. Landutako gaien artean, **ingurunearen zaintzari** buruzko kontzientziazioa eta **gure itsasoaren osasuna** nabarmendu ziren, **gizarte-gaiak** ahaztu gabe.

Ingurunearekiko konpromisoa izan zen azken jaialdiaren ardatz nagusietako bat. Zehazki, **gure itsasoaren osasuna**; izan ere, Olatu Talka gertatu zen unean hondartza-denboraldia ireki zen. Gaia presente egon zen hainbat dinamikatan: ibilbideak, arte-instalazioak, bigarren eskuko azokak, *Itsas Zaborra out*, Gure itsasoaren osasunaren alde, *Ondarreggae*, eta naturarekin zerikusia zuten hitzaldi eta ibilaldiak, besteak beste.

Kultur aniztasunak ere bere lekua izan zuen jaialdian. Ongi Etorri Eskolarak antolaturiko topaketak kulturen arteko ezagutza eta migrazioaren gaia jorratu zituen, *Gure oinek mundua mugitzen dute* goiburutzat hartuta. Bestalde, Caritasek *Hiria eraikitzen* jarduera garatu zuen, eta gizarte-bazterketaren kontrako ekintzak burutu zituen.

Beren lekua izan zuten beste gizarte-gai batzuk izan ziren, besteak beste, *Kalean bizi* atalaren barruan egindako jarduerak, zeina programaren ardatz nagusietako bat baitzen (gune irekietan egindako dinamikek osatua). Besteak beste, Alderdi Ederren aurkeztutako *Book Box*, *Oikocredit* edo *Cycling without age* ekinbideak. *Irudigileak* ekimenak ere -emakume ilustratzaileen lanen erakusketa, Egiako pasabidean ikusgai jarria (hiriko puntu kritikoetako batean)- oihartzun handia eta arrakasta izan zituen jaialdian.

Bestalde, jende gehien erakarri zuten jarduerak hauek izan ziren: *Kontxa Gaumarket*, sortzaileentzako plataforma, 80 postu bi egunetan, eta *Kontzertour*, 50 musika-emanaldi.

Boga! amaierako ekitaldiak, itsasoan barrentzen zela ematen zuen agertoki batean, eman zion buru etapa oso positibo bati. Han esan zigun betiko agur Olatu Talkak.



Bogal